



CARLOS VILLAGRAN

Jo ta fuego

K.G. / DONOSTIA

Donostiako XXVIII sufesta lehiaketa dagoeneko bukatu da. Irabazleak nortzuek izan diren jakitea baino ez da falta. Urtero sufestak milaka pertsona biltzen dituzte Kontxako hondartzaren inguruetan. Sufestak Donostiako Aste Nagusiko ekitaldi nagusia bihurtzeaz gain, inguruetako jendea erakartzeko oso egokiak izan dira.

Aurten parte hartu dutenen artean maila handiko pirotekniak daude. Beste pirotekniak batzuk berriz lehen aldiz azaldu dira eta ostiral gauean Howard & Sons pirotekniak nahiko paper kaxkarra egin zuen. Pontevedrako La Gallega pirotekniak ere ez zuen batere gustora utzi Kontxan bildu zen jendea. Dena dela gustokoak ez diren gauzak

hobe gogoratzen direla esan zuenari kontra egiteagatik kalitate handiko suak erre zirela ere aipatu beharra dago.

Ohi den bezala Valenciako pirotekniek bere nagusitasuna erakutsi zuten eta soilik Tenerifeko Toste pirotekniak eskaini zuen haiekin borrokatzeko moduko su festa. Irabazlearen izena aurreratzeako ausardiarik ez badugu ere, Valenciako Turis eta Caballer pirotekniak lehen postua lortuko balute ez ginateke gehiegi harrituko. Izan ere zeruaren iluntasuna eta ikusle goaren aurpegiak alaitzen inor ez bezala aritu ziren.

Jendeak ere oso ondo erantzun zion egindako gonbiteari eta ez zegoen zirriztu bat ere libre Alderdi Eder lorategia inguratzaren duten kaleetan. Aste Nagusi honek berritasun gutxi izan baditu ere, su festak jendea erakartzeko ahalmena ez du galdu ●

Valenciarrak suak izan dira ikusleek gehien txapootu dituenak.



Howard & Sons eta La Gallega pirotekniek ikuskizun nahiko kaxkarra eskaini zuten ●




TXUBILLO

Grafikagintza

Era guztietako inprimakiak

Cristobal Balenciaga, 58 Tfnoa.: 21.68.55 (Igeldo) DONOSTIA

LANBROA



kafetegi edaritegia

konstituzio plaza 5
t.42 19 58
DONOSTIA

Amaiaur KOSMETIKA NATURALA

Urbieta 55 / DONOSTIA / Tfno.: 45 13 94



Futonia

Gure futoiak festa zoriontsuak opa dizkizue !!

31 Agosto, 10
Tfnoa.: 27.10.48 DONOSTIA

Somera, 14
Tfnoa.: 94-415.74.48 BILBO

